

Zikloiaren ostean, Bangladeshen ekaitz politiko gogorra piztu da

Hondamendiek markatu izan dituzte gobernu aldaketak azken urteetan

Bangladesheko Gobernuari kritikak alde guztietatik datozkio orain, apirilaren 29ko zikloiaren eragin hilkorrek agerian utzi bait ditu azpiegitura eskasiak herrialde pobre honetan. Khaleda Zia lehen ministroa, estatu hau gobernatzen duen lehen emakumezkoa, une politiko larrian dago kargua hartu eta bi hilabetetara.

LUIS FERNANDEZ / DONOSTIA

Hondamendi naturalak ebitatzeko plangintza ofizialek porrot egin dute, eta prentsak Gobernu salatzeko egoeraren errudun. 1970ean, beste zikloi bortitz batek milioi erdi lagun hil zituen Bangladesheko kostaldean, baina orduan agindutako prebentzio lan handiak ez dira burutu oso hein txikian baino. Zikloientzako 62 babesleku eraiki ziren kostaldean, oso gutxi eskualde superpopulatu horretarako (115 milioi biztanle ditu herrialde honek).

Oraingo hondamendiaren ondorengo erreakzio falta ere salatu du oposizioak. «Gobernuak porrot egin du krisiari aurre egiteko orduan. Dezentzia zer den balekete dimititu egingo lukete», adierazi izan du Sheikh Hasina-k, Awami Liga alderdiko burua. Hasina ere emakumezkoa da, Khaleda Zia lehen ministroa bezala; datu bitxia estatu mu-



Hildakoak lurperatzen oraindik eta, hasi da bataila politikoa Bangladeshen.

MARK LENNIHAN

sulman honetan. Otsaileko hauteskundeetan Awami Ligari oso gutxi-gatik gailendu zitzaion Ziaren Alderdi Nazionalista Bangaldeshtarra.

Bangladeshen historian hondamendi naturalak eragin dituzte aldaketa politikoa: 1970eko zikloiaren garaian, Pakistanen «ekialdeko probintzia» zen Bangladesh, Indiako lurraldeek zatitzen zutelarik estatu

musulman hau. Gobernuak ez zuen ia ezer egin zikloiaren kalteak gutxitzeko eta independentzia gerra odoltsua piztu zen 1971n.

Independentziarekin, Mujibar Rahman lehendakariak (Sheikh Hasinaren aita) ez zuen asmatu 1974eko gosetea ebitatzen, eta estatu kolpe batean hil zuten 75ean. Oraindik gosete hura gogoratzen dio Khaleda

Ziak bere aurkari Hasinari. Haren ordezkia, Ziaur Rahman jenerala (bere alarguna da Khaleda Zia) 1981ean hil zuten beste kolpe batean. Lider berriak, Mohamed Ershad jeneralak, 1990a arte iraun zuen, baina 1988 eta 89ko uholde izugarriek sortutako protesta giroak boteretik aldentu zuen eta hauteskunde askeak burutu ziren.

Komunisten gorakadak Bhattarai lehen ministroaren dimisioa eragin du Nepalen

DONOSTIA

Krishna Prasad Bhattarai Nepaleko lehen ministroak dimisioa aurkeztu dio Birendra erregeari igandeko hauteskundeetan bere aulkia galdu eta gero. Bhattarai Kongresuaren Alderdia erakundearen zerrendan zegoen Kathmandun baina, hautagai komunista nagusitu egin zaio hiriburuko bozketan.

Hiriburuko emaitza hauek kolpe gogorra izango dira Bhattaraiaren partiduentzat. Nazio osoan oro har irabaziko duela espero den arren, komunisten gorakadak ez dio inori bakarrean agintzen utziko. Azken emaitza ofizialak oraindik ezagutu ez arren, segurutzat jotzen da inork ez duena gehiago osoa lortuko. Lehen datuen arabera, Kongresuko alderdiak 80-90 lagun jar litzake Legebiltzarreko 205 aulkietan. Bigarren postua Alderdi Komunistarentzat izango litzateke —lehena hiriburuan—.

Ondoko postuetan antzinako sistemaren defendatzaileak lirateke. Partidu hauek lehen ministro izaniko bi gizonen zuzentzen dituzte eta izen

berdina daukate: Alderdi Nazional Demokratikoa (NDP). Surya Bahadur Thapa eta Lokendra Bahadur Chand dira bi buruzagiak. Ideologia zein izenaren aldetik berdintasuna hain argia izanda, politikari biek deituekin jokatu behar izan dute 'diferentziak' isladatzeko. Eta honela, NDP 'Chand' eta NDP 'Thapa'

✓ **Nepaleko Kongresuko Alderdiak egitura ahula dauka oraingoan. Komunisten hutsa, berriz, barneko ideologia borrokari dago.**

bataitatu dituzte alderdiok.

Igandeko hauteskundeek aukera eskaini diete 11 milioi nepaldarri botoa emateko. Azken bozketan demokratikoa 1959ko otsailean gertatu zen Nepalen. Harez geroztik Birendra I erregeak monarkia absolutuan agindu izan du. Iaz baina amore eman behar izan zuen popularen

CIAko zuzendari berria hautatzeko arazoak EEBBetan

WASHINGTON

William Webster-ek, lehen-go astean dimititu zuen CIAko zuzendariak, ezeztatu egin du Estatu Batuetako espioitzak porrot egin zuenik Golkoko gatazkan. Inteligentzia zerbitzu honek denbora gehiegi pasa zuela Saddam Husseinen intentzioen aurrean erreakzionatzen baina hala eta guztiz ere, oker hau ez zela ekialdeko herrialdeen arazoekin arduratu gehiago zegoelako, adierazi du. Kargua nork beteko duen da orain arazoa, nahiko hautagai polemikoa bait da Robert Gates 'Iran-Contra' eskandalorekin lotzen delako.

Websterrek agertu zuenez, Israel, Europa, eta nazio arabiarren zerbitzu sekretu guztien ustez ere, Irakek ez zuen behar bezain besteko indarrik Iranen aurka zortzi urteko gerra amaitu berriaren ondoren. Aduen ustez harriztekoa da Saddam Husseinen planen berririk ez izatea, honek bere armamentua indartzen jarraitzen bait zuen.

Kargu hau Robert Gates, Segurtasun Nazionalen kontseilariaren esku egon daiteke. Bere izena 'Iran-Contra' arazoekin loturik izateak ordea kandidatura atzera bota dezake. Gatesek ez zuen kongresuan bere erregubatasuna garbi utzi eta ez zuen lortu CIAko zuzendaritza. Bere ordezkari Webster izendatu zuten. Etxe Zuria sondeo bat egiten ari da kongresuan, hautagai proposatzenaren bila.



Krishna Prasad Bhattarai lehen ministroa, eskainurik gabe. GOPAL CHITRAKAR

presioaren aurrean eta erreforma politikoak iragarri. Kongresuaren alderdia, komunistekin batera alderdiaren aldeko borrokari izan zen estatuaren lotura baten bidez. Partidu biak ditugu gaur egun nagusiak Nepalen, ondoko urteotan paper garrantzitsua jokatu dutenak hauteskundeetan emaitzen ondorioz.

Kongresuko Alderdia 50eko hamarkadan sortu zen Calcuttan -India-. Nazio osoan ondo hedaturik egonda ere, boteretik kanpo ibili izan gaita egitura sendorik gabe utzi du. Gainera arazoak izan ditu buruzagitzan, Koirala idazkari nagusia eta Bhattarai lehen ministroaren artean. Honen dimisioak, botere borroka berpiztuko du alderdiaren barruan seguru.

Komunisten akats nagusia indarrak batu ezinarena da, adar guztietako partaideen batasun ideologiko indartsua osatzea. Kanpaina honetan mezu politiko eta ekonomimoz gain, arlo nazionalari ere lotu zitzaizkion. Partiduak Bhattarai-ren 'indiar zaletasuna' kritikatu du, Kongresuaren Alderdiak bere burua Indiari saldu diola salatuz.